



## PROGRAMA ZEHATZA – DBUS-EN 130. URTEURRENA

### JADA EGINDAKO JARDUERAK

- **Dbusen eta hiriaren historiari buruzko gymkhana**, Olatu Talka kultur jaialdiaren programazioaren barruan. Pasa den maiatzaren 20an egin zen ekitaldia (*Ezagutu Dbus*)

### URTEURRENAREN DENBORA OSOKO JARDUERAK

- Dbusi buruz **argitalpen historikoak** sare sozialetan (*130 urteko historia*).
- **Kronika Instagramen** Dbuseko egunerokoaren gainean (*Ezagutu Dbus*).
- **Donostia Kulturarekin elkarlana**, kulturaren bitartez mugikortasun iraunkorra bultzatzeko, hirian antolatutako kultur ekitaldietara joateko autobusa erabiltzera bultzatuko baitira erabiltzaileak. Ekintza horrek lagundu egingo di erabiltzaileei hiriko kultur guneekin lotuta dauden lineak hobeto ezagutzen (kultur etxeak, antzokiak, kontzertu aretoak, etab.) (*Dbus Hiri Berdea*).
- **Hiri Berdea kanpaina**, Dbuseko autobusek hiria garbiago egon dadin egiten dutenaren gainean. Kanpaina honetan hainbat ekintza egingo dira, eta ekintza horiek bultzatzeko hainbat euskarri erabiliko dira, esaterako markesinak, autobusetako errotuluak edo sare sozialak.
- **Dbusen izaera iraunkorraren** eta irisgarriaren **gaineko iragarkia** . Bideoa ikusgarri dago jada Dbusek Youtuben duen kanalean (*Dbus Hiri Berdea*).

### 2016KO UZTAILA

- Konpainiaren 130 urteen **bideo oroigarria**, Dbuseko erabiltzaile donostiarren lekukotasunekin (*130 urteko historia*).
- **#NikereDbus Kanpaina**, garraio publikoa batetik bestera ibiltzeko modu iraunkor gisa erabiltzearen garrantzia azpimarratzeko. Iragarki formatuko bideoak izango dira eta Donostiako pertsona ezagunek parte hartuko dute, esaterako La Oreja de Van Gogh taldeko kideek, bai eta Dbus erabili ohi dituzten era askotako pertsonen ere (*Dbus Hiri Berdea*).



- **Bi astean behin Instagrameko lehiaketa, #ZureDbusHiria**, non erabiltzaileek Dbuseko zerbitzuek hiriaz gozatzeko ematen dituzten aukerak partekatu ahal izango dituzten. Beren argazkia argitaratu beharko dute Instagramen #NireDbusHiria etiketa erabiliz, eta berrargitaratu egingo dira Dbuseko Instagram profilean (*Dbus Hiri Berdea*).
- **Cristina Enea Fundazioarekin elkarlana**, Dbuseko erabiltzaileak ingurumenaren zaintzarekiko sentsibilizatza bideratutako dinamizazio ekintzak antolatzeke. Jarduerak naturaren zaintza bultzatza bideratuko dira, informazioaren bidez eta naturarekiko elkarreraginaren bidez.

### 2016KO ABUZTUA

- **ONCEko asteburuko kupoiaren edizio berezia** (2016ko abuztuaren 28an), Dbusen 130. urteurrenari dedikatua.

### 2016KO IRAILA

- **Dbuseko langileei egindako elkarrizketak**, Konpainia osatzen duten departamentu guztien funtzionamendua erakusteko eta hiritarrek Konpainiako eguneroko lana hurbiletik ezagutzeko. Bideo horiek Dbusek Youtube duen kanalean egongo dira ikusgai eta Konpainiaren sare sozialen bitartez zabalduko dira (*Ezagutu Dbus*).

### 2016KO URRIA-AZAROA

- **“Autobus Berdea” Haurrentzako tailerra**: birziklatutako materialak erabiliz autobusen maketak sortzeko tailerra. Donostia Kulturarekin elkarlanean egingo da, eta 12 urtera bitarteko neska-mutikoeak parte hartu ahal izango dute. Tailerraren ondoren maketarik nabarmenenak aukeratuko dira, eta Aieteko Kultur Etxean jarriko dira ikusgai.

Lekua: Aieteko Kultur Etxea.

Egunak: urriak 22 eta 29 / azaroak 19 eta 26

Aurretik izen ematea: [haurtxoko\\_aiete@donostia.eus](mailto:haurtxoko_aiete@donostia.eus) / 943 000 200

### 2017KO MARTXOA

- **“Dbuseko oroitzapenak” izeneko kontakizunen lehiaketa**, idatzizko kontakizunen edo argazki deskribapenen lehiaketa bat, erabiltzaileek autobusean izan dituzten pasadizoak edo istorioak ezagutzera eman ditzaten. Lehiaketa helduentzat zein haurrentzat izango da, eta haurrek ikastetxeen bitartez parte hartuko dute..



## 2017KO UZTAILA

- **Jai kotxetegietan, Dbuseko langileentzat eta beraien senideentzat.** Jai horretan tailerrak eta jolasak egingo dira txikienentzat, eta Konpainiako zati diren pertsona guztiek mugarri garrantzitsu hori elkarrekin partekatze aukera izango dute.

## BESTE EGUN BATZUK

- **Bisita antolatuak** Kotxetegietara adin guztietako pertsonekin, ikastetxeetako neska-mutikoez gaur egun egiten dituzten bisitez gain. Bisitak 11:00etan egingo dira, eta beharrezkoa izango da gutxienez 7 eguneko aurrerapenez izena ematea (info@dbus.eus / 943 000 200).

Egunak:

- Irailak 24
- Urriak 22
- Azaroak 19
- Abenduak 17
- 2017an bisita gehiago egingo dira, eta horiek aurrerago iragarriko dira.